



Euskal Herriko Eskolartekoaren finala, udazkenean

Aldiz, lurraldeetako kanporaketa saioak eta finalak asteotan egingo dira: maiatzan izango dira Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako finalak, eta ekainean egingo da Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa batzen dituen.

Oinak buruan eta hitza ahoan, Euskal Herriko 14 eta 18 urte bitarteko gazteak hasi dira Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketaren baitan bertsoan. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hasiak dira dagoeneko, eta Nafarroako eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako gazteei ez zaie askorik falta ekiteko. Udaberrian eta udan egingo du bere bidea lurraldeetan Eskolarteko saguzarrak, eta udazkenean berriro astinduko ditu hegalak Euskal Herriko Eskolartekoaren aitzakian.

Apirilaren 23an hasi genuen txapelketa Gipuzkoan, eta maiatzaren hasieran Araban eta Bizkaian. Horiak amaituta gauzatuko ditugu finalak lurralde bakoitzean: maiatzaren 15ean egin genuen Agurainen Arabakoa, Bertsoa Bizi Gazte Eguna ospatzearekin batera. Maiatzaren 28an zehaztu dugu Gipuzkoako Eskolartekoaren finala Urnietan, eta hurrengo egunean finkatu ditugu Bizkaikoa eta Nafarroakoa; Igorren eta Lesakan, hain zuzen. Nafarroako kasuan, saio bakarrera ekarriko dugu Eskolarteko Bat-bateko

Bertsolari Txapelketa, eta egun horretan ospatuko dugu, gainera, Nafarroako Bertso Eskolen Eguna. Ekainean egingo ditugu saioak Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako gazte bertsolariak elkartzen dituen txapelketari dagokionez. Ekainaren 26an egingo da finala Senperen.

Lurralde bakoitzean sailkatzen diren txapeldunordeekin eta txapeldunekin egingo dugu azkenik 2021eko Eskolartekoari amaiera emango dion Euskal Herriko Eskolartekoaren finala.

Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatzen dugu Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketa. Gazteei jendaurrean bat-batean jarduteko aukera ematea du helburu, baita umeak eta gazteak entzulearen aukitit zaletzea ere.

2020koa ezin eginda, Eskolatik Plazara

COVID-19ak 2020ko Eskolarteko Bat-bateko Bertsolari Txapelketaren ohiko

martxa eten zuen. Lurraldeetan gauzatu genuen txapelketa, baina Euskal Herriko finala ezin izan zen egin. Horren ordez, eta gazte finalistek jendaurrean oholzaratzeko aukera izan zezaten, plazan ohikoak diren bertsolariekin saioak antolatu genituen: Eskolatik Plazara ekimen horren baitan, hiru saio egin genituen Gernika-Lumon, Iruñean eta Altzon.



**AMAIA
AGIRRE ARRASTOA**

Lesaka, 2021-V-08

I. Señora Sariketa

Doinua: Kantuz sortu naiz eta IV

Esti, Maialen, Rosi garai gogorretan Kristinan artelanak gizonen obretan erreka bat sortu zait begi lehorretan antolatzaileekin nijoa zorretan bidelagun gazteak artistak horretan segi autopistak sortzen bidezidorretan.

Eskolarteko bat-bateko txapelketaren finalak

Araba. Maiatzaren 15ean, Agurainen
(Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin batera)

Gipuzkoa. Maiatzaren 28an, Urnietan

Bizkaia. Maiatzaren 29an, Igorren

Nafarroa. Maiatzaren 29an, Lesakan
(Nafarroako Bertso Eskolen Egunarekin batera)

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa. Ekainaren 26an, Senperen

Euskal Herria. Udazkenean

Maiatzaren 22an jokatu da Arabako Binakako Txapelketaren finala

Legutioko kiroldegian izango da saioa, 17:30etik aurrera; sarrerak eskuragai daude dagoeneko www.bertsosarrerak.eus atarian.

Bide berri bati heldu eta binakako txapelketa antolatu dugu aurten Araban. Apirilaren 17an hasi genuen bidea, eta asteburuan amaituko da Legution jokatu den finalarekin. Saioa 17:30ean hasiko da, kiroldegian.

Hiru bikotek kantatuko dute larunbateko finalean: lehenengo bertsolari bikotea Iñaki Viñaspre Simonek eta Unai Anda Delidak osatutakoa izango da; bigarrena, Manuel Bendala Garcia-Donas eta Oihane Perea Perez de Mendiolarrena; eta, hirugarrena, Martin Abarrategi Sarrionandiak eta Manex Agirre Arriolabengoak osatutakoa. Finalean aurkezle lanetan Nieves Del Alamo Gil eta Eli Plazaola Zubizarreta ariko dira.

Guztira 18 bertsolari hasi zuten bidea binakako txapelketan, hau da, 9 bikotek. Finalerdietara sei bikote pasatu ziren eta finalean hiru bertsolari bikotek kantatuko dute. Txapelketako kanporaketak Izarran, Araian eta Oionen jokatu ziren; finalerdiak, ostera, Amurrioren eta Gasteizen. Asteburuan helduko da txapelketa amaierara, Legutioko finalarekin.

Binakako Txapelketaren sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian, 15 eurotan. Ohi bezala, bazkideek abantaila izango dute, eta 10 eurotan eskuratu ahal izango dute txartela. 16 urtetik beherako gazteek 5 eurotan eskuratu dezakete finaleko sarrera.



Finalurrekoetatik sailkatu dira bertsolariak Legutioko finalera. / XDZ

Hernandorena saioa maiatzaren 29an egingo dugu, Baionan

Sariketa izan beharrean bertso saioa izango da aurtengoa; Zizpa gaztetxean jarri dugu hitzordua hilaren 29an, 18:00etan.

Pandemiak eragindako neurriek Hernandorena sariketa lehia bezala ezin antolatuta utzi gaituzte. Berdintsu gertatu da Hazparnen egitekoa zen Bertso Egunarekin ere. Maiatzaren 22rako geneukan aurreikusita, baina datorren urtean egingo dugu azkenean, egoera hobea denean.

Maiatzaren 19an neurriak arinduko dituztela jakinda, nahiz eta sariketa formatuan egin ezin, beste era batera egingo dugu

Hernandorena aurtengoan: bertso saioa formatua emanda antolatu dugu. Maiatzaren 29an izango da, 18:00etan, Baionako Zizpa gaztetxean.

Bertso saioan kantuan hasiko diren bertsolarien zerrenda ere osatua dugu dagoeneko. Hurrengoak dira: Irati Alcantarilla, Nahia Sasco, Oier Urreizti, Josu Txoperena, Oñena Arteaga eta Haura Aizpurua. Anima zaitzete saioaz gozatzera!

Udako Bertso Eskola antolatu dugu ekainaren amaierarako

Euskal Herri osoko bertsozale gazteen topagune izan nahi du ikastaroak; matrikulazio epea zabalik dago dagoeneko nahi duten guztientzat.

Udako Euskal Unibertsitatearekin batera eta Mikel Laboa Katedraren laguntzarekin, bertsolari buruzko udako eskola antolatu dugu ekainaren amaierarako. Bertsolari buruzko ikerketa eta gogoetak partekatze gune ez ezik, tailerretan ariketa praktikoak egiteko gunea ere izango da. Izan ere, landutako praktikatzeko abagunea edukiko dute ikasleek ikastaro bukaerako saioan.

Ekainaren 29an eta 30ean izango da ikastaroa Iruñako Katakraken. Batik bat 30 urte arteko bertsozale eta bertsolari gazteentzat sortu da udako eskola, eta, oro har, bertsozale eta kultura zaleentzat, baina 16 urte edo gehiago duen

edonor matrikula daiteke. Helburua, bertsolariaren ezagutza partekatzea da, bertsozalearen teknika hobetzeko aukera ematea. Horretaz gain, Euskal Herri osoko bertsozale gazteen topagune izan nahi du udako eskolak.

Matrikula, zabalik

Udako eskola honetan parte hartzeko epea zabalik dago gaurtik eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da. Izen-emateari, egonaldia, eta matrikulazioari buruzko ohar guztiak www.ueu.eus atarian aurkituko dituzue, UEUren orrialdean.



Zabalik dago udako eskolarako matrikula epea. / XDZ

EKAINAK 29

GOIZA

- 10:15 Ongietorria
- 10:30-11:30 Hainbat bertsoaldi eztabaidagai, genero-ikuspegitik (tailerra). Ane Labaka
- 11:30-12:15 Bertsolarien kantaeraz. Maddi Soroa
- 12:15-12:45 Pausa
- 12:45-14:15 Bat-bateko bertsoen kantaera lantzeko tailerra. Maddi Soroa

ARRATSALDEA

- 16:00-17:00 Agurraren aurretik. Andoni Egaña
- 17:00-18:00 Gaiak, egitura eta aurkezletza: Nonbaitetik abiatu nonbaitera heltzeko. Maite Berriozabal
- 18:00-19:30 Bertso saio baterako gaiak sortzeko tailer praktikoa. Maite Berriozabal (gai eta ariketak biharamuneko saioan baliatuko dira)

EKAINAK 30

GOIZA

- 10:15 Ongietorria
- 10:30-11:15 Prentsa historikoko hari muturrekin bertsolariaren historia soziala ehuntzen. Antxoka Agirre
- 11:15-12:00 Bertsolari gazteen mugimenduak: Hamaika Bertute. Amaia Agirre
- 12:00-12:15 Pausa
- 12:15-13:00 Taldean bakarka. Bakarkako bertsoaldien prestaketa. Alaia Martin
- 13:00-14:30 Bertsolariaren presentzia (ariketa praktikoak). Manex Fuchs

ARRATSALDEA

- 17:00-18:30 Bertso saioa. Saioa ikasleei ez ezik nahi duen orori irekia eta doakoa izango da. Aforoa bete arte egongo da zabalik.
 - . Bertsolariak: ikastaroko ikasleen saioa (4, 5 edo 6 ikasleekin)
 - . Gai-jartzaile: ikastaroko ikaslea(k) gai-jartzaile
 - . Gaiak eta egitura ikastaroko tailerren prestatutakoak
- 18:30 Ikastaroaren itxiera



Puntua jarrita

MADDI SARASUA LASKARAI

Xermin, lagun. Ez naiz ba filosofoa! Bistan da, teknikak egiten duela artea arte. Baina garaiari loturik doa teknika, ekoizpen moduari, lekuari, modari. Artearena bezala, bertsoaren funtzioa ederraren bidez egia adieraztea da. Hitz irisgarritz, inguratzen gaituen errealitate bortitza edo eraikitzen ari girenaren indarra deskribatzeko balio beza bertsoak, kritikatzeko, aldarrikatzeko, gogoetazteko, ospatzeko, zirrikarako. Teknikak egiten du artea arte, baina edukia da enetzat, dudarik gabe garrantzitsuena. Gaur egungo bertsoaren epai irizpideek formari diote balioa emaiten, baina nik gogoeta eragiten didaten bertsoak ditut gehien baloratzen.

Gizarte komunista batean, gizarte eder batean, loreen liluragarritasunaz aritzen ahalko ginatke bertsutan. Baina gizarte huntan, karrrikako miseria, lanean explotatuaren oldarraldiaz, bortxatu dutenaren isiltasunaz, errententzio zentroan denaren etorkizunaz... aritu behar gira. Gizarte hunen injustiziez ohartaraztea da egin genezakeen ekarpena. Baina bereziki, bertsoz kanpo, gizarte hobe baten eraikuntzan bizi duguna, sentitzen ari garena, ditugun gogoetak transmititu ahal izaitzea iduritzen zait ederra. Nik bederen, horrela kokatzen dut garai huntako bertsoari ekin dezaketek ekarpena.

Baina argi ukan beharrekoa da, bizi duguna eta egiten duguna dela bertsoz ekartzen duguna, ez bagira bestelako gizarte baten eraikuntzan antolatuak, bertsoz, gizarte huntako boteredunen ideologia transmitituko dugula. Beste bizitzeko modu bat, eta gauzak ulertu eta ikusteko beste forma batzuk eratzten ari ez bagira, inguratzen gaituen kosmobisio kapitalistaren eroale izanen gira, nahi gabeen ere.

Zuri, Ortzi Murua, Paris aldean bizitzen ari zirenak nola aldatu dizu bertsoarekiko ikuspegia?

Koplak

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak, ekainaren 4an

Euskal Herriko soinu artxiboen berezitasunei buruzkoak izango dira aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak. Hitzordua ekainaren 4an jarri dugu, goizez, Amasa-Villabonako Subijana etxean. Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatzeko eta ezagutarazteko helburuarekin antolatzen dira urteko. Zazpigarren edizioa izango da aurtengoa.

Poto-Finixa



Elkar saria, etxerako!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Eman izena Bertso Udalekuetan!

Martxan dago Bertso Udalekuetan izena emateko epea. Maiatzaren 21era arte, lehenengo izen-emate epea egongo da zabalik: lehen epe hori bertso-eskolako kide diren edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide duten gazteentzat da. Bigarren izen-emate epea maiatzaren 25etik 31ra arte izango da, eta epe horretan, edonork eman ahal izango du izena. Aurten zortzi txanda egongo dira udalekuetan. Izena emateko zein txandei buruzko informazioa www.bertsozale.eus atarian topatuko duzue. Animatu eta eman izena!



Eskuragarri www.lanku.eus atarian

PUBLIZITATEA